

# AU3 AUTOMOZIOA

## Mod.6/AUIE/296 IBILGAILUEN EGITURAK

***Iraupena: 8 ordu***

***Taldeak: 5 pertsonako 5 talde.***

### **1.41. WORKSHOP: Ekonomia zirkularra modelatzen**

**Hasiera data: 2024-10-14**

**Amaiera data: 2024-11-06**

**Antolaketa: Taldeka**

# Landuriko gaitasunak eta lorpen adierazleak

**IE4.1:** Egituraren osaera eta portaera ezagutzen ditu, eta haren osagaiak mihiztatzeko metodoak fabrikazio- eta konponketa-prozesuekin lotzen ditu.  
KARROZERIAK FABRIKATU ETA MIHIZTATZEKO (ensamblar) PROZESUA

## Zeharkako kompetentziak

### Lanerako jarrera:

- Mugikorraren erabilera
- Laneko arriskuen prebentzio arauen betetzea
- Ingurumenari buruzko arauak betetzea
- Lanpostuko erreminta eta instalazioen erabilera egokia
- Lanerako prestutasuna
- Taldekideak eta irakasleak errespetatzea

### Autonomia:

- Egin beharreko lanen ulermen eta antolakuntza egokia
- Tailerreko jarduerak gauzatzeko gaitasuna

### Komunikatzeko gaitasuna:

- Idatziz komunikatzeko gai izatea
- Ahoz komunikatzeko gai izatea

## Erronka

Hondakinak prebenitzeko europako astea (EWWR- European Week of Waste Reduction) 2024eko azaroaren 16tik 24ra bitartean ospatuko da Europar Batasunean eta bere helburuen artean dago herritarrak kontzientziatzea hondakinen sorrerak dakarren arazoari eta hondakinen sorrera prebenitzeko beharrari buruz.

Europar Batasunaren estrategia eta legedia kontuan hartuta, hondakinen kudeaketan prebentzioak lehentasuna izan behar du, eta ondoren hondakinen berrerabilerak eta birziklapenak, gizakion osasuna eta ingurumena babestearren. Gomendio orokor horiei gehitu behar zaie Europar Batasunetik sustatzen ari den "ekonomia zirkularra".

Ildo horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentua lehendik ere aritu izan da Gipuzkoako ikastetxeekin batera lankidetzan, 2007az geroztik.

Hondakinak Prebenitzeko Europako Astearen edizio berri honen aurrean, Gipuzkoako lanbide-heziketako ikastetxeetako gazteen artean sentsibilizazioa eta filosofia hori zabaltzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak "Ekonomia Zirkularra Modelatzen" eskultura-erakusketa martxan jarri du. Horren bitartez islatu nahi dira lanbide-heziketako gazteek ikastetxeetan hondakinen prebentzioa eta kudeaketa egokia egiteko burutzen dituzten jarduerak, ekonomia zirkularra bultzatzearen.

Eskulturaren gehieneko neurriak hauek izango dira: 1m x 1m x 1,5m eta pisu maximoa 50 kg izango da, behin bukatuta zati banaka osatuko duena, muntaiarik edo egokitzapenarik behar ez duena. Hori dena garraiatzeko eta erakusteko errazago egiteko.

Abstrakzio maila eta erabilitako teknikak libreak izango dira, eta bat baino gehiago konbinatu daitezke.

Obrei titulu bat jarri behar zaie, baita laburpen txiki bat erantsi DIN A4 batean.

Egingo den eskulturaren "**tensegrity**" kontzeptua egon behar da garatuta. (<https://www.youtube.com/watch?v=fvMpxF2zfDY>)

## Baliabideak

**Klaseko materiala:** ordenagailuak, orrialdeak, proiektorea

**Garbiguneko txatarra:** Garbigunean dagoen txatarra erabiliko da

**Tailerreko erramintak:** soldador...

Ekintza hauek tailerra eta Ethazi geletan gauzatuko dira.

## Entregatuko beharreko lanak

### Bozeto aurkezpena (2024-10-23)

Lana klase aurrean aurkeztuko da. Aurkezpen guztien oztean lana irabazlea bozkatuko da.

### Eskultura muntaia (2024-11-06)

Kurtso hasieratik egindako lanaren arabera irakasle taldeak 5 ikasleko taldea aukeratuko du eskultura muntaia egiteko

## Sariak

Eskultura lehiaketara aurkezteko garaiz amaitzen bada, 5 tresna-maleta zozketatuko dira ikasleen artean, honela:

- 2 bozeto talde irabazleari
- 2 maketa egiten duen taldeari
- 1, irakasle-taldearen erabakiz

### Teknikoak

Teknikoak			
<b>IE4.1</b>	Eskultura muntaia (100%)		

### Zeharkakoak

Zeharkakoak				
<b>Lanerako jarrera</b>	Irakasleak ikusitakoa (%100)			
<b>Autonomia</b>	Irakasleak ikusitakoa (%100)			
<b>Komunikatze gaitasuna</b>	Irakasleak ikusitakoa (%100)			

## Taldekatzea eta antolaketa

- 1: Aner Marko, Markel Peñakoba, Aimar Basauri, Camal Mohamed, Oier Manjon
- 2: Asier Agiriano, Eddaf Hamudi, Aitor Imaz, Ekaitz Zabarte, Gorka Fernandez
- 3: Eder Alcalde, Unai Etchevarria, Iker García, Eneko Calvo
- 4: Kepa Aranburu, Izaro Osinalde, Lander Pérez, Talha Hussain, Aitor Etxebarria
- 5: Ander Pineda, Joseba Rodriguez, Harkaitz Molina, Aner de la Torre

## Denbora antolaketa

**Astea:** Urriak 16tik Abenduak 6ra

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
8:00 – 9:00					
9:00 – 10:00					
10:00-11:00					
11:30-12:30					
12:30-13:30					
13:30-14:30					